

2013ko bigarren hiruhilekoan esportazioen unitateko prezioen urte arteko tasa %1,1 gehitu zen

Inportazioen prezioak %0,8 jaitsi ziren

Eustaten datuen arabera, 2013ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEko esportazioen unitateko prezioek gora egin dute, %1,1 (lehen hiruhilekoan %1), Unitate Balioaren Indizeen eta urte arteko tasen arabera neurtuta, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Inportazioetan %0,8ko jaitsiera dugu urte artean eta %2,4koa hiruhilekoen artean.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta. 2013ko bigarren hiruhilekoa. (%)

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	1,0	1,1	-2,4	-0,8
Kontsumo-ondasunak	0,8	3,4	-1,2	2,5
Kapital-ondasunak	2,8	0,1	0,2	-1,9
Bitarteko-ondasunak	0,5	0,7	-2,6	-1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari begiraturik, esportazioetan, Kontsumoko ondasunen prezioen indizean (%3,4), Bitarteko ondasunetan (%0,7) eta Kapitalekoetan (%0,1) gehikuntzak ditugu. Inportazioetan, urte artean, Kontsumoko ondasunetan %2,5eko gehikuntza dugu; Kapitalekoetan %1,9ko jaitsiera eta Bitarteko ondasunetan %1ekoa.

Esportazioak doazen **area geografikoak** aintzat hartuz, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean prezio unitarioek gora egin dute denetan, batez ere Euro-eremuan (%1,8) eta ELGAn (%1,2).

Inportazioetan kontrakoa dugu, denetan jaitsierak urte artean: %0,9 27-EBn eta ELGAn, %0,7 Euro-eremuan eta %0,6 Munduko gainerakoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, area geografikoen arabera esportazioetan, denetan balio positiboak daude, ELGAko %1,3tik Munduko gainerako %0,2ra bitartean.


Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, geografia-eremua aintzat hartuta. 2013ko bigarren hiruhilekoa. (%)

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	1,0	1,1	-2,4	-0,8
Euro eremua	0,6	1,8	-2,2	-0,7
EB-27	0,2	0,4	-2,1	-0,9
ELGE	1,3	1,2	-1,9	-0,9
Munduko gainerakoa	0,2	0,7	-3,1	-0,6

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Aurreko aldiaren aldean inportazioetan jaitsierak ditugu nonahi prezio-indizeetan: %3,1 Munduko gainerakoan, %2,2 Euro-eremuan, %2,1 27-EBn eta %1,9 ELGAn.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI). Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI). Datu - bankua